BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

446

EBAZPENA, 2014ko urtarrilaren 16koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena. Honen bidez, argitara ematen da, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2012ko otsailaren 1eko Aginduan ezarritako laguntzen 2013ko erakunde onuradunen zerrenda. Agindu horren bitartez, Behatoki Estrategiko Sektorialentzako laguntzak arautzen dira.

Diru-laguntza publikoak emateko, ezinbestean bete behar da publikotasun-printzipioa. Hori dela-eta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2012ko otsailaren 1eko Aginduan xedatutako laguntzen onuradunei banan-banan jakinarazi ondoren, onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen da, agindu honen bitartez (2012ko otsailaren 1eko Aginduaren bidez, Behatoki Estrategiko Sektorialentzako laguntzak arautzen dira).

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Xedea.

Behatoki Estrategiko Sektorialentzako laguntzak arautzen dituen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2012ko otsailaren 1eko Aginduaren 13. artikuluaren seigarren atalean ezarritakoarekin bat etorriz, laguntzen 2013ko erakunde onuradunen zerrenda argitaratzen da, honekin batera doan eranskinean ageri bezala.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 16a.

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea,
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.

ERANSKINA

Entitate onuraduna	Diru-kopurua
Agrupación Cluster de Electrodomésticos de Euskadi, A.I.E. «ACEDE»	22.011,83 €
Asociación ACICAE Cluster de Automoción de Euskadi	15.848,52 €
Asociación Cluster de Industrias de Medio Ambiente de Euskadi «ACLIMA»	5.723,08 €
Asociación Española de Fabricantes de Máquinas Herramientas, sus Accesorios, Componentes, Herramientas de Corte y Deformación, otros Sistemas y Tecnologías de Fabricación «AFM»	35.983,94 €
Asociación Cluster del Sector Audiovisual de Euskadi-Euskadiko Ikustentzunezko Klusterra «EIKEN»	7.616,09 €
Asociación Cluster de Energía	10.519,02 €
Asociación Cluster de Aeronáutica y Espacio del País Vasco «Hegan»	17.609,47 €
Asociación Española de Fabricantes de Herramientas de Mano «Herramex»	7.924,26 €
Asociación Cluster de Movilidad y Logística de Euskadi «MLC"»	6.763,79 €
Guztira	130.000,00 €